

**2020**  
**URTARRILA**

**BARATZE EKOLOGIKO EXPERIENTZIA BATZUEN  
ANALISI MULTIFAKTORIALA**



1.SARRERA OROKORRA.....	2
2.DATU OROKORRAK.....	3
3.AZTERTUTAKO FAKTOREAK.....	4
3.1.-ALDERDI TEKNIKOA.....	4
3.1.1.JARDUERAREN DESKRIBAPENA .....	4
3.1.3.BALIABIDE MATERIALAK.....	5
3.1.3.JARDUERAN ERABILITAKO INSUMOAK.....	5
3.2.-ALDERDI EKONOMIKOA.....	6
3.2.1.INBERTSIOAK.....	6
3.2.2.FINANTZIAZIOA .....	7
3.2.3.GASTUAK .....	7
3.2.4.SARRERAK.....	8
3.2.5. GALDU IRABAZI KONTUA eta ALTXORTEGIA .....	9
3.3.-INGURUMENEN ALDERDIAK.....	10
3.3.1.INGURUMENEN BITARTEKOEN ABERASTASUN EGOERA .....	10
3.3.2. HONDAKINEN KUDEAKETA.....	11
3.3.3.ENERGIA EFIZIENTZIA .....	11
3.4. ALDERDI SOZIALAK.....	11
3.4.1.GIZA BALIABIDEEN EZAUGARRIAK .....	11
3.4.2.INGURUKO BALIABIDEEN ERABILPENA .....	13
4. PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA.....	14
4.1.EKONOMIKOA.....	14
4.2.PERTSONALA.....	14
4.3.PUNTU AHULAK .....	14
5.ONDORIOAK.....	14

## 1.SARRERA OROKORRA

Azterketa hau, 2016an FOPEren esparruan Biolur eta Lurgintzak elkarlanean egindako lanketaren jarraipena da. Lan horretan 4 baratzezainen kasuak aztertu ziren, bisita eta inkesta batzuen bidez, bideragarritasun tekniko- ekonomikoa eta soziala ezagutzeko.

Bi helburu nagusi izan zituen lanak, alde batetik jardueraren bideragarritasuna aztertzea, hobetzeko puntuak detektatu asmoz, eta bestetik gure errealitatean oinarritutako diren baratzerako azpiegitura minimoak definitzea, instalazio berriei begira.

Inkesta haiekin ondorioztatu genituen emaitza nagusiak 3 izan ziren:

1. Baratzezainak gustora daudela duten lanarekin.
2. Diru sarrera aldetik nahiko justu dabiltzala.
3. Dedikazioa oso handia denez, zailtasunak dituzte esparru sozial eta familiarrak uztartzeko.

Jarraipena den bigarren analisi honetan, galdetegia beste 10 esperientzietara zabaldu da, 6 Gipuzkoan kokatzen dira eta beste 4ak Bizkaian. Kasu hauek egonkortutako esperientziak dira, hau da, 5 urte baino gehiago baratze gintzan daramatenak. Azterketarako jaso diren datuak 2018koak urteari dagozkionak dira.

Azterketarekin jarraitzeko arrazoi nagusia, baratzezain ekologikoen bideragarritasun tekniko ekonomikoa eta sozialean sakontzea izan da, eta hiru helburu nagusi izango ditu.

1. Baratzezain bakoitzaren kasua aztertuz, hobetzeko proposamenak planteatzea.
2. Bideragarritasunerako oztopo nagusiak identifikatu, eta talde dinamikaren bitartez kolektiboki lantzea.
3. Egindako lanaren dibulgaziorako material txiki bat publikatzea eta aurkeztea.

Txosten honek galdetegi azterketaren ondorioz jasotako informazioa puntuka azaltzen du, ondorio nagusi batzuetara iritsi eta lanketa kolektiborako puntuak identifikatuz.

Bestalde eta eranskin bezala galdetegi indibidualak ditu, hobekuntzarako proposamen nagusiekin. Esan behar da, 10 kasuetatik 6tan beraiek hala eskatuta egin zitzaizela azterketa, konziente zirelako hobetzekoak zutelak.

## 2.DATU OROKORRAK

**1.ALLANEGI BASERRIA.** Elduaien kokatzen da, eta bertan 4.000 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean eta 460 m<sup>2</sup> negutegian kudeatzen dira. Orain 6 urte hasitako instalazio berria da. Jabegotzako azalera, baratza lantzeko lurraz gain, 1,5 hektareako larre azaleraz eta 13,5 hektarea basoz osatzen da. Pertsona batek kudeatzen du, laguntza familiarra eta bolondresekin. **1,19 UTA<sup>1</sup> teoriko ditu.**

**2.BARANDIARAN BASERRIA.** Ataunen kokatzen da, eta bertan 5.300 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean eta 255 m<sup>2</sup> negutegian kudeatzen dira. 6 urte daramatzen instalazio berria da, 7 hektareako lur jabetzarekin, horietatik 5 basoa izanik. Pertsona batek laguntza familiarrekin kudeatzen du. **1,37 UTA teoriko ditu.**

**3.GAZTAINDIZAHAR.** Zarautzen kokatzen da, eta bertan 4.000 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean eta 840 m<sup>2</sup> negutegian kudeatzen dira. Instalazio berria da orain 12 urte hasita, eta alokairuan dituzte 13.800 m<sup>2</sup>. Bi pertsonak osatutako elkarte zibilak kudeatzen du, bat jornada osoan eta besteak partzialki lan eginez, momentu puntaletako laguntza gehigarriarekin. **1,41 UTA teoriko ditu.**

**4.EREÑAZABAL.** Aretxabaletan kokatzen da, eta bertan 3.500 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean eta 680 m<sup>2</sup> negutegian kudeatzen dira. 10 urte daramatzen instalazio berria da. Jabetzan dira 1,15 hektarea, erdia gutxi gora behera basoa izanik. Pertsona batek laguntza familiarrekin kudeatzen du. **1,20 UTA teoriko ditu.**

**5.ITZAI.** Lezoko agrodaldea kokatzen da, eta bertan 9.300 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean eta 700 m<sup>2</sup> negutegian kudeatzen dira. Orain 6 urte GFArekin hitzartutako lurretan hasitako instalakuntza berria da. 2 pertsonak osatutako elkarte zibila da, jornada erdian bakoitza, eta puntualki laguntza familiarra izaten da. **2,55 UTA teoriko ditu.**

**6.LURRAREN ORENA.** Lezon kokatzen da hau ere, eta 20.000 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean kudeatzen dira, horietatik hektarea bat agroaldean dago, eta beste bat Apaizartza baserrian. Negutegiak 1.190 m<sup>2</sup> dira, eta hauek agroaldean daude. Instalazio berria da duela 6 urte hasieta, eta lurak GFArekin dituzte hitzartuak. 3 pertsonak osatutako elkarte zibila da, bi jordana osoan eta

---

<sup>1</sup> **UTA teorikoak** kalkulatzeko, *Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustategiei dagokienez, laborantzen marjina gordinak, Nekazaritzako Lan-Unitateak (NELU) zehazteko modulu objektiboak eta ustategien gastu finkoen koefizienteak ezartzeko 2016ko martxoaren 31ako agindua erabili da, beti ere ekologikoa eta salmenta zuzenaren koefizienteak aplikatuz.*

beste bat jornada erdian egonik. Lan puntaletan ere laguntza kolektiboa izaten da. **5,72 UTA teoriko ditu.**

**7.PATXIKOBASO BASERRIA.** Iurretan kokatzen da, eta bertan 2.000 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean, 1.100 m<sup>2</sup> negutegian eta 10.500 m<sup>2</sup> sagarrondo kudatzen dira. Instalazio berria izan zen orain 10 urte. 5,5 hektareako lur jabetza du, eta horietatik bat basoa da. Pertsona bat laguntza familiarrarekin ibiltzen da. **1,44 UTA teoriko ditu.**

**8.AROA.** Galdamesan kokatzen da, eta bertan 5.000 m<sup>2</sup> ko baratza aire librean, 1.100 m<sup>2</sup> negutegian eta 10.000 m<sup>2</sup> sagarrondotan kudatzen dira. Duela 15 bat urte hasitako proiektua da. 5 hektareako lur jabetza du. Pertsona batek laguntza familiarrarekin kudeatzen du, batzuetan praktiketako pertsonak ere izanik. **1,96 UTA teoriko ditu.**

**9.GOIRITXU BASERRIA.** Larrabetzun kokatzen da, eta bertan 10.010 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean, 1.300 m<sup>2</sup> negutegian eta 3.500 m<sup>2</sup> sagarrondotan kudatzen dira. Baratza jardunak 15 urte atzeragotik dator, eta orain 4 urte emandako errelebo bat da. 11.500 m<sup>2</sup> jabegotzakoak dira, eta beste 3.500 m<sup>2</sup> errenta. Bi pertsonak kudeatzen dute. **3,14 UTA teoriko ditu.**

**10.IBARRA BASERRIA.** Zornotzan kokatzen da, eta bertan 7.500 m<sup>2</sup>-ko baratza aire librean, eta 1.200 m<sup>2</sup> negutegian kudatzen dira. Aurrez konbentzionalean egiten zen baratza, urteetan geldirik egonik, 2012an hasitako instalazio berria da. Lurrak errentan dira, guztira azalera 25.000 m<sup>2</sup>-koa izanik. Pertsona batek kudeatzen du, laguntza familiarrekin. **2,43 UTA teoriko dira.**

### **3.AZTERTUTAKO FAKTOREAK**

#### **3.1.-ALDERDI TEKNIKOA**

##### **3.1.1.JARDUERAREN DESKRIBAPENA**

10 esperientzietan, dimentsio desberdinak kudeatzen dira, 1,19 eta 5,72 UTA teoriko bitarteko kasuak ikus daitezke. Hala ere, esperientzia denetan, pertsona batek UTA teoriko bat baino gehiago kudeatzen du, eta kasu batzuetan aldea nabarmena da, bikoitza baino gehiago izatera ere iritsiz. Esperientzia denetan aipatzen da titularrak gainera laguntza, kasu gehienetan familiarra izaten da, eta beste batzuetan kolektibo edo kontsumo taldeko kideena.

% 50ak azalera handitzeko asmoa azaltzen du, % 40ak berriz mantentzearena. Kasu batek (Aroa) azalera gutxitu eta agroturismoa martxan jartzeko helburua du epe ertainera.

Esperientzia gehienetan, baratza jarduera bestelako ekoizpen batzuekin osatzen dute: fruta arbolak, animali gutxi batzuk edo ogia Patxikobaso kasuan.

Kasu guztietan ekoizpen ekologiko ziurtatua dute, baratza eta frutagintzarako.

### **3.1.2.BALIABIDE MATERIALAK**

#### **Lurra**

Esperientziaren %60ean lurra jabegotzakoa da, kasu baten jabegotza senideena izatearekin identifikatuz. Beste erdiak alokairuan dute, horietako bi kasu agroaldeak dira, lur publikoa alegia. Kasu gehienetan baratzeke azalera handitzeko aukera izango lukete, nahiz eta denek ez duten handitzeko asmorik, mantentzearekin konformatuz. Lur zoru publikoaren aukeraz galdetuta, denek ezetz esaten dute. Kasu batean lur zoru publikoa animaliak bertara eramateko aukerarekin lotzen du.

#### **Ura**

Baliabide desberdinak aurkitzen ditugu: sondaketak, balsak, depositoak, eta baserri batean baita manantiala ere.

Sareko ura barazkiak garbitzeko erabiltzen dute denek, eta hiru baserrietan udaran ureztatzeko ere erabili behar izaten dute.

#### **Hasierako baliabide materialak**

Esperientzietako hasierako egoera denetan ezberdina izanda ere, kasu batzuetan lur eta baserriaren erosketa aipatzen delako, denek makinarian, negutegietan eta ureztatzean inbertitu dute, eta hiru esperientzietan biltegiaren inbertsioa ere jasotzen da.

### **3.1.3.JARDUERAN ERABILITAKO INSUMOAK**

#### **Simaurra**

Gehien erabiltzen dena ardiarena eta behiarena da, beti ere lastoarekin nahastuta. Gertuko beste baserri batzuetatik ekarritakoa izaten da (nahiz eta oiloak dauzkatenak hauen simaurra ere aprobetxatu). Orokorrean urtean behin ekartzen dute, eta pilatuta eta tapatuta edukitzen dute zabaldu bitartean. Gehienek ez dute iraulketarik egiten, Ibarra eta Goiritxu baserrietan bai.

#### **Ongarri organiko komertziala**

Ereñazabalen eta batzuetan Ibarra erabiltzen dute, xixare humusa kasu bietan, eta inguruan simaurra eskuratzeko arazoengatik lehenengoan eta erasotasunagatik bigarren kasuan.

### **Ongarri mineralak**

6 baserrietan erabili ohi dute. Gehien bat karbonato kaltzikoak (4 baserrietan). Baten fosfato eta potasiodun harri naturalen nahasketak lehenengo urteetan (2 baserrietan) eta basaltoa baserri batean.

### **Haziak**

Erabiltzen diren hazi guztiak ekologikoak dira. Lekariak, kalabaza, kalabazina, baratxuriak, azenarioa, erremolatxa, errefautxoak eta artoa dira batik bat erosten direnak. Erositako hazien portzentajea kasuen arabera, %50-90 bitartekoa da eta bi baserrietan %100 erosten da.

### **Landaretxoak**

Denak, %100a ekologikoak dira, eta % 80-100artean dago erositakoaren portzentajea. Ibarra baserriak negutegi-hazitegia daukanez % 20-30 bakarrik erosten du.

### **Fitosanitarioak**

Baserri guztietan erositakoak erabiltzen dituzte: Bacillusa, ferramola, xaboi potasikoa, azufrea, salda bordelesa, piretrina eta neem-a. 6 baserrietan etxean egindakoak ere erabiltzen dituzte: asun-ura, azeribuztan-ura eta konsuelda-ura batik bat. Bi baserrietan mikroorganismoekin frogatan dabilta.

### **Bestelako materialak**

Kasu gehienetan belarra kontrolatzeko akoltxatu plastikoak edo "horsola" erabiltzen dute (batez ere tipulekin eta hostoekin). Tutoreei dagokionez, sareak (rafia, plastikoa), kanaberak, ferraia dira erabilienak.

## **3.2.-ALDERDI EKONOMIKOA<sup>2</sup>**

### **3.2.1.INBERTSIOAK**

Baratzerako beharrezko baliabidea lurra da, 10 esperientzietatik 6tan lantzen duten lurraren jabeak dira, 4 kasutan erositakoak eta beste bietan lurra familiarenak dira. Erosketa den kasuetan lurra edo eta baserria hain zuzen ere, 39.000-150.000 euro bitarteko inbertsioak izan dira.

<sup>2</sup> Kasu bakoitzaren detaileak galdegian jasotzen dira.



Bestalde behin baliabide hau edukita, jarduera burutzeko egin diren inbertsioetan alde handiak daude kasu batetik bestera, lurren egokitzapenak, bideak edo biltegiak egin dituzten. Hala ere aipatzekoa da guztiek inbertitu dutela minimo batzuetan, makinarian, negutegietan eta ureztatze sisteman. Inbertsio hauetan ere ezberdintasunak daude, dimentsioen ezberdintasunagatik, edo eta inbertsioak berriak edo bigarren eskuak izan diren.

Kasu denetan negutegi eta ureztatze sistemetarako inbertsioak egin dituzte, eta baita rotabatorra edo eta motokultorea erosi. Tratorean berriz %70ek inbertitu dute. Hauetatik 4 esperientziatan erosketa berria izan da, inbertsioa nabarmenki handituz.

Negutegi motaren kasuan, gehiengo zabalaren aukera tunel sinpleak izan dira. Kasu batean bakarrik erosten da plakazko multikapera (Gaztandizahar), inbertsioa 3,5 aldiz handiagoa delarik tunel azalera berdinarekiko.

Bataz beste hiru kontzeptu hauetan inbertitutakoa (negutegia+ureztatze sistema+makinaria traktorea barne) 38.000€ izan da, UTA teorikoko 21.000 euro.

Hiru kasutan biltegiak bezalako azpiegiturak daude eta kasu hauetan egin den inbertsioa 85.000 euro ingurukoa da media bezala, eta UTA teoriko bakoitzeko 44.500 euro.

### **3.2.2.FINANTZIAZIOA**

Inbertsioak egiterako garaian, erdiek, mailegua dute, eta bi kasutan mailegu hauek 100.000 euro baino gehiagokoak dira, baserri eta lur erosketa finantzatzeko izan baitira.

Beste kasuetan 50.000 euro baino gutxiagokoak dira.

Beste finantziazio iturri bat diru-laguntzak dira, eta %90ak jaso dute instalakuntza berrientzat edo eta inbertsioentzako dauden laguntzak, 6 kasutan instalakuntza berri hauek GAZTENEK izan dira, eta kasu hauetan inbertsio guztien %30etik gorako laguntzak jaso dituzte.

### **3.2.3.GASTUAK**

#### **Gastu aldakorrak**

Atal honetan jarduerari zuzenean lotutako gastuak jasotzen dira, bai ekoizpenekoak ( landareak, haziak, ongarririk, fitosanitarioak, ... ), bai eta komertzializaiori lotutakoak (poltsak, etiketak, garraio gastua...).



Atal honetako gastua 1.800-9.700 euro arteko tarten kokatzen da. Hala ere esperientziek dimentsio ezberdinak dute, eta UTA teorikoaren gain kalkulaturik, gastua 900-2.300 euroko tartean kokatzen da. Gasturik handiena landare eta haziena da, kasu gehienetan %60tik gorakoa suposatuz.

### **Gastu fijoak**

Gastu fijoek, ekoizpenari zuzenean lotuak ez daudenak dira, baina berau aurrera eramateko beharrezkoak direnak, eta ekoizleak urtero ordaindu beharrekoak. Gastu horiek, ditugun mantenu, konponketa, hornikuntza, zerbitzu, finantziario gastu eta baliabide materialen amortizazio kostuak jasotzen ditu.

Bakoitzak egin dituen inbertsioei lotutako amortizazioetan eta haiek finantzatzeko bakoitzak eskatu behar izan duen maileguari lotutako gastuetan daude alderik handienak. Gastu fijoak 6.600-24.200 eurotako tartean mugituz. UTA teorikoko 3.000-14.500 € takoa da tartea.

Aldiz kontzeptu hauen gastuak kentzen baditugu, (amortizazioak eta maileguak) 10 kasuetatik 8tan, gastu fijoak UTA teorikoraren gainean 2.200-4.000 euroko tartean kokatzen da. Kasu baten, 1.200 eurokoa da UTAKo, oraindik gizarte segurantzaren kostua ez duelako, eta beste kasu batean, urte horretan langile kontratazio gastua eta ezohizko material erosketagatik, gastua 8.600 eurotara igotzen da UTAKo.

### **3.2.4.SARRERAK**

#### **Sarrera Aldakorrak**

Ekoizpenetik datozen ingresoak dira, eta esperientzia guztietan gertuko eta bezeroekin harreman zuzenean oinarritzen diren komertzializazio bideak dira salmenta kanalak. Kasu guztietan merkatua, otarrak edo kontsumo taldeak, denda txiki edo jatetxeak, eta kasuren baten eskola jantokiak dira bide hauek.

10 etik 9 baratzezainetan, ingresoen %80 baino gehiago bezeroekin harreman zuzena duten bideetatik jasotzen dira, otarren edo merkatuen bidez hain zuzen ere.

Prezioak ezartzerako orduan, gehienek Biolurreko prezioak aipatzen dituzte erreferentzia bezala, edo eta inguruko baserritarrenak. Kasu batean, IBARRA baserrikoak aipatzen du, honen inguruan irizpide batzuk ipiniz kostuen gaineko azterketa bat egin nahi duela.

Kontsumitzaileekin harremana lantzeko marketineko ekintzarik egiten den galdetuta, kasu batean, sare sozial ezberdinen erabilera aipatzen da. Gehienek bezeroekin duten harreman zuzena oinarri

izanda ez dute egiten, hala ere kasu batzuetan, bisitak, auzolanak edo eta kontsumo taldeekin batzarrak egiten dira, bezeroekiko arreta eta gardentasuna erakusteko, baita konpromisoa jasotzeko helburuz ere.

Bestalde aipamenean bat ere bada baserrietara kontsumitzailea gerturatzeko gero eta zailtasun handiagoa dagoela edo harremana gutxitzen ari dela esaten duenik.

Esperientzietan sarreraren tartea 11.600-53.000 eurotan kokatzen da, baina kontuan eduki behar da dimentsio ezberdinetako kasuak direla. Hala ere UTA teorikoaren gain hartzen badugu, sarreraren tartea 6.400-16.900 eurokoa da, aldea bikoitza baino gehiago izanik.

### **Sarrera fijoak**

Hemen jarduerari lotutako urteko laguntzak, kapitaleko laguntzen urteko amortizazioa eta bestelako sarrera extra batzuk sartzen dira, azoketako dietak edo formazio eta hitzaldietakoak besteak beste.

Alde handia dago jaso duten kapitaleko laguntzetan, gaztenek eta inbertsioetakoak dira hauek. Bestalde urteko laguntzei dagokionez, baten ezik, ekologikoari lotutako laguntzak kobratzen dituzte eta erdiek bakarrik adierazten dute ICM “indemnización compensatoria agricultura montaña” laguntza kobratzen dutela. Laguntza extra bezala ere 10etik 5ek bakarrik dute sarreraren bat.

Aztertutako baratze esperientzietan sarrera fijoaren tartea 0 €-tik 3.500 €-ra doa. Eta sarrera hauek UTA teorikoetara ekarrita 0 €-tik 2.430 €-ra bitartekoa da.

### **3.2.5. GALDU IRABAZI KONTUA eta ALTXORTEGIA**

Galdu irabazien kontua eta altxortegiaren askotan zaila izaten da ezberdintzen, lehenengoak jardueraren emaitza isladatzen du, eta altxortegia likideziari lotuta dago.

Kasu hauetan fakturazioaren diru sarrerak eta irteerak berdinak izango direla estimatzen dugu, salmenta zuzenean oinarritzen direlako, eta egunerokoan eta gehienez hilero kobratzen delako, eta gastuak ere berdin kudeatzen dira. Beraz galdu irabaziaren eta altxortegiaren aldea, inbertsioari lotua dago, hauek suposatzen duen urteroko devaluazioak dakarren kostuari lotuta, eta baita berauek finantzatzeko izan den kudeaketarekin, mailegu eta laguntzei lotua hain zuzen ere.

Beraz, galdu irabazietan sarrera bezala inbertsioak finantzatzeko izan diren laguntzen urteari dagokion amortizazioa sarrera bezala jasoko da, eta gastu bezala, inbertsioen urteko debaluazioak dakarren kostua.

Altxortegian aldiz, diru sarrera-irteerak direnez, inbertsioen laguntzei dagokion sarrerarik ez dugu jasoko, eta gastuetan amortizazio teknikoa jaso beharrean amortizazio finantzieroa jasoko dugu.

Galdetegi bakoitzean biak joan arren, urteko gastu bezala galdetegietan maileguen kuotak jaso dira, askotan gastu bezala mailegu amortizazioa izaten delako irteera erreala eta altxortegia edo tesoreria da ulertzen errazena.

Beraz altxortegia kontutan hartuta eta UTA teorikoari erreparaturik, kasu bakarrean bakarrik heltzen da 2018ko soldata minimoa gainditzera (10.302 € urtekoa, 735,90 €/ hilean, 14 pagatan). Eta gaztenek programarako eskatzen den emaitza kontutan hartuta, 9.600 €/urteko, berdinak bakarrik gainditzen du etekin hau.

Aldiz UTA teorikoak kontutan hartu gabe, UTA errealei erreparaturik, proiektuetako pertsona titularrak laguntza puntualik gabe, %40ak gaztenek-erako eskatzen den 9.600 eurotako langa pasatzen dute eta kasu berberak dira, soldata minimoaren langa pasatzen dutenak.

Galdu irabazien emaitzekin portzentaiak ez dira aldatzen apenas, alegia, %40ak gaztenek-erako eskatzen den 9.600 eurotako langa pasatzen dute eta aldiz soldata minimoaren langa pasatzen dutenak %30 dira.

Aipatzekoa da, inbertsioei lotutako kontzeptuak kenduz gero, %70ak pasako lukeela bai gaztenek bai eta soldata minimoaren langa, inbertsioek duten garrantzia azpimarraturik.

### **3.3.-INGURUMENENKO ALDERDIAK**

#### **3.3.1.INGURUMENENKO BITARTEKOEN ABERASTASUN EGOERA**

##### **Lur mota**

Lur motari dagokionez, 10etik 7tan Biolurren bitartez lur analisiak eta luraren emankortasun diagnosis eta maneiu gomendioak eginda dituzte.

Orokorrean lur emankorrak dira, izaera limotsua dute; lanerako pixkat astunak, baina elikagaiak eta ura gordetzeko gaitasun txikiarekin, arin lehortu eta nekatzen direnak. Materia organiko gehiegikeria

ere ikus daiteke, sistemaren ezaugarri eta urteetako ongarriketa dosi altuen ondorioz. Lurren manei u gomendioen irizpideak, dosiak gutxitu, jarduera biologikoa piztu, eta falta diren elementuak gehitzea (kaltzioa eta fosforoa zainduz batik bat) dira.

### **Biodibertsitatea**

Baserri guztietan inguruko biodibertsitatea altua dela esan daiteke, landatzen dituzten labore anitzez gain, guztietan, basoa, larrea, frutarbolak eta animalia ezberdinak daudelako.

### **Laboreen maneiua eta kudeaketa**

Baratza intentsiboak eta oso dibertsifikatuak dira, orokorrean 30 espezie baino gehiago lantzen dituzte urtean.

Errotazioen irizpide nagusia “familiak ez errepikatzea” da. Eta espazioa ere kontutan hartzen da plangintza egiterako orduan.

Ongarriketa berriz, simaur konpostatuan oinarritzen da 1,5-4 kg/m<sup>2</sup> bitarteko dosiak aplikatuz eta kasu batzuetan urtero baratza osoa eta besteetan portzentai bat ongarritzen da, beti ere landareen exigentziaren arabera.

Ongarri berdeak ere erabiltzen dira 6 baserrian, txirta eta oloa izanik nahasketa nagusia.

Ongarriketa mineralari dagokionez, 6 baserrietan bakarrik erabiltzen dute (karbonato kaltzikoa, fosfato eta potasiodun harri naturalen nahasketak, eta kasu batean basaltoa).

### **3.3.2. HONDAKINEN KUDEAKETA**

Kasu denetan, bai plastiko eta bai enbaseak garbigunera edo bilketa puntuetara eramanten dira.

Bi kasuetan, plastikoaren berrerabilpena egiten dela esaten da.

### **3.3.3. ENERGIA EFIZIENTZIA**

Ez dago galdetegietan ezer jasota.

## **3.4. ALDERDI SOZIALAK**

### **3.4.1. GIZA BALIABIDEEN EZAUGARRIAK**

#### **Inplikaturiko pertsonak**

Azterturiko baratzetako sei esperientzian, pertsona bakarrak dihardu familiako laguntza puntualarekin.

Beste lau kasuetan pertsona bat baino gehiago aritzen dira. Batean, bi pertsona jornada erdira daude, eta beste batean, batek osatzen du jornada osoa, kidea jornada laurdenean egonda. Beste bietan bi pertsona daude jornada osora, eta kasu batean hirugarren bat jornada laurdenean.

Hala ere esperientzia guztietan denek puntualki laguntza familiarra edo kolektiboaren dutela aipatzen dute. Eta kasu batzuetan praktikatako pertsonak, edo bekadunak, eta baita bolondresak ere.

### **Generoa**

10 esperientzietan, laguntza kontutan hartu gabe, genero ikuspegia ez baita jaso, parte hartzen duten pertsonak 15 dira, eta horietatik 6, hau da %40 emakumeak dira. Titulartasunari begira aldiz, 10 esperientzietatik 3tan emakumeak dira titular bakarrak, kasu batean bi emakumerekin, eta beste bi kasutan emakumeak elkarteko kide dira gizonezkoekin batera.

### **Adina**

Tartea zabala dela esan daiteke, 30-52 urte bitartean daude 15 pertsona horien adinak. Baina 2 esperientzia daude 30 urteko pertsona titularrekin.

### **Motibazioa**

Sektorean lanean hasteko arrazoiak asko dira, gustuko lana, aire librean, autonomo izatearena, lurrari, naturari, elikagai osasuntsuak sortzearen aipamenak etb jasotzen dira. Erabaki gehienak beraz irizpide ideologiko politikoetan oinarritzen dira.

### **Formazioa**

Gehienek unibertsitate ikasketak dituzte edo erdi mailako formazioa, eta baita ere sektoreari lotutako ikasketaren bat.

### **Forma juridikoa**

Kasuen %60ean titularra bakarra da, autonomo izaerarekin, beste 3 esperientzietan elkarte zibila eta beste batean ondasun komunitatea “comunidad de bienes” dira kudeatzeko darabilten izaera juridikoak.

### **Dedikazioa**

Dedikazioa oso handia da, urteko epealdia udara eta negu bezala banatzen dira, udara martxotik urrira bitarteko tartea izanik, eta negua azarotik otsailera artekoa.

Kasu bakoitzak astea antolatzeko ordutegi ezberdina izanda ere, kasuen erdietan asteko egun guztietan egiten dute lan udara partean, batz besteko lanaldia 9 ordukoa izanik.

Neguan berriz, batez besteko lanaldia 6-8 ordukoa da.

Gehienak, udarako igandeetan ordu gutxiago sartzen saiatzen dira, eta neguan igandeak libre izaten.

Bi kasutan, neguan, asteburuak libre hartzen dituzte, eta beste bi kasuetan berriz urte osoan astelehenetik ostiralera egiten dute lan.

Oporrei dagokienez, normalean neguan eta urtean 1-2 astekoak izaten dira. Baratzea bi lagun artean kudeatzen den kasuetan, udaran aste bat hartzeko moldatzen dira. Kasu batean aipatzen da oporrik ez dela hartzen

### **Soldata**

10etik 7ek, lanaldi osoko soldata 800-1.200 euro bitartekoa hartzen dutela esaten dute galdetegietan. Kasu batean 400 eurotako soldata eta beste bietan gastuak kubritzeko edo eta negatiboan daudela adierazten dute.

Galdetegietan esandakoa altxortegian ateratzen denarekin alderatzen badugu, esandakoak eta datuetatik ondorioztatzen denak, esperientzia erdietan bakarrik egiten du bat edo hurbiltzen da. Beste kasuetan datuak esandakoa baino emaitza kaskarragoa adierazten dute, eta beste kasu batean alderantziz.

### **Lanarekiko satisfakzioa**

Nahiz eta oso lotua eta fisikoki gogorra izan, denak gustuko lana dela azpimarratzen dute, hala ere aipamen gazi gozoak egiten dira, batez ere etekin ekonomikoari lotuta.

### **Helburu pertsonalak epe ertainera edo luzera**

Nagusiki denek duten helburua lan baldintzak hobetzearena da, batez ere dedikazioari, opor eta soldatei dagokienean.

### **3.4.2.INGURUKO BALIABIDEEN ERABILPENA**

Gehienek inguruko beste baserrietatik ekartzen dute. Bestalde sektoreko hainbat kolektibotako edo eta elkarteetako kide dira asko, pertsona aktiboak eta konprometituak izanik.

#### **4. PROIEKTUAREN BIDERAGARRITASUNA**

Proiektuaren bideragarritasunaz galdetuta ondorengo puntuetan laburbildu dira galdetegietaik jasotakoak.

##### **4.1.EKONOMIKOA**

Baratz jarduera ekonomikoki bideragarria izan daitekeela esaten dute guztiek, eta bi gako nagusirekin lotzen dute bideragarritasuna.

1. Inbertsioak egitearekin. Lana optimizatzeko beharrezkoa ikusten delako, baina baita ere inbertsioak modu egokian eta orekatuan egiteak duen garrantzia azpimarratzen da, urteroko amortizazio gastuei aurre egin behar zaiolako. Kasu batean gehiegizko inbertsioei lotutako bideragarritasun eza aipatzen da.
2. Azalera handituta eta komertzializaio bide berriak jorratuz. Honek hala ere lan karga handitzearen zailtasuna gainditzea dakar.

##### **4.2.PERTSONALA**

Orokorrean lan motarekin oso gustura egon arren, bideragarritasun pertsonalean lan kargak, familiarekiko bateragarritasuna, eta bideragarritasun ekonomikoari lotutako kezkek azpimarratzen dira.

##### **4.3.PUNTU AHULAK**

Laburbilduz hauek dira, galdetegieta jasotako ahulgunerik aipatuena.

- Lan karga handia. Bai lan ordu aldetik eta baita fisikoki oso exigentea.
- Oso lotua: Familiarekin oreka aurkitzeko zaila.
- Prezioen lanketaren beharra, bideragarritasun ekonomikorako
- Bezero berriak erakartzeko zailtasunak.
- Modu kolektiboan kudeatzeko zailtasunak.

#### **5.ONDORIOAK**

Lan honetatik atera ahal diren ondorio nagusiak, hurrengo puntuetan laburbiltzen dira.

1. 10esperientzietatik 6etan beraiek eskatuta egin da galdetegia, beraz hobetzeko behar batetik eginda dago eskaera.



2. 10 kasuak ezberdinak badira ere, baratzegintza guztiek gustuko dute, eta bizitzeko era bati lotutako erabakia izanda ere, **aktibitate ekonomiko izanik, kudeaketa tekniko ekonomiko egokia eta orekatua bilatzea ezinbestekoa da**. Hau lortzeko produktibitatean hobetzea eta inbertsio minimoak egitea beharrezkoa ikusten da, beti ere asko neurtuta, kostuari eta hauek finantzatzeko baliabideei arreta handia jarritz.
3. Baratzegintzak, beste sektore batzuekin konparatuz, **ez du jarduerari lotutako urteko laguntza berezirik (PAC)**. Bideragarritasun ekonomikoari begira autonomia da, sarrera aldakorrak urteko bestelako sarrerekiko, %80tik gora suposatzen dute. Beraz laguntzen menpekotasunik ez dago, eta laguntza ezak etekinetan badu eragina.
4. **Lan karga da jarduera honen puntu ahulenetako bat**, bideragarritasun ekonomiko eta pertsonalean eragin zuzena duelako. Laguntza familiar edo kolektiboa ezinbestekoa da kasu guztietan. Bestalde UTA teorikoak ezartzen dituen dekretuak eta errealitateak ez du bat egiten, pertsona batek teoriaran esaten den terreno azalera handiagoa kudeatzen baitu.
5. **Lan baldintzak prekarioak direla esatera ausartu daiteke**. Batetik, soldata minimoetara iritsi ezinik, eta bestetik ordu librean eta oporren kudeaketa oso zaila egiten delako eta batez ere udaran. Honek jardueraren iraunkortasuna zalantzan jartzen du, eta instalakuntza berriak erakartzeko ere zailtasunak erakusten ditu.
6. **Sektorea balioan jartzeko lanketa** egin beharra ikusten da, baratzeko ekologikoak egiten duen ekarpen positiboa jendarteratuz. Honek ekoizpenei prezio egokiak eta duinak jartzeko balio behar du.